

Interseksionalitatea eta gobernantza publiko-komunitarioa: demokratizaziorako esparru heuristikoa arakutzen

Nerea Aramendia

Politologoa eta EHUKo doktoregaia Soziologian. Parte Hartuz ikerketa-taldeko kidea

Artikulu honek, oraindik abian den, doktorego-tesi zabalago baten atal zehatz bat jorratzen du. Tesiak gobernantza publiko-komunitarioa begirada interseksionaletik aztertzen badu ere, artikulu honek gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko elkarriketaren ondorioz sortzen den heuristikan arakatzeko helburua du. Horretarako, aipatutako elkarriketa horretan etengabeko elkarrekintzan antzematen diren hiru dimentsio aztertzen dira: eraldaketa soziala, ahalduntzea eta gatazkaren ulerkera. Azkenik, hiru dimentsio horien artean igartzen den demokratizaziorako esparru heuristikoa arakatzeko lehenengo urratsak marraztu dira. Hala, amaitzeko, agerikoa egin den ondorio horretatik abiatuta, aipatutako hiru alor horien harremanak eta esparru heuristikoa hau arakatzeko marko interpretagarri baten proposamena egiten da.

GAKO-HITZAK: Gobernantza publiko-komunitarioa · Interseksionalitatea · Heuristika · Demokratizazioa.

Intersectionality and public-community governance: exploring a heuristic framework for democratization

This article addresses a specific section of an ongoing doctoral thesis. While the thesis analyzes public-community governance from an intersectional perspective, this article aims to investigate the heuristics that emerge from the dialogue between public-community governance and intersectionality. To achieve this, three dimensions identified in this interaction are analyzed in the aforementioned dialogue: social transformation, empowerment, and the vision of conflict. Finally, the initial steps are outlined to explore the heuristic framework for democratization that is suggested among these three dimensions. Lastly, based on this conclusion, a proposal for an interpretive framework is presented to explore the relationships among the three mentioned areas and this heuristic framework.

KEY WORDS: Public-community governance · Intersectionality · Heuristic · Democratization.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5196>

Jasotze-data: 2025-01-08

Onartze-data: 2025-04-02

1. Sarrera¹

Interseksionalitatearen eta gobernantza publiko-komunitarioaren arteko harremanetik sortzen den esparru heuristikoa arakatzea da artikulu honen xede nagusia. Gobernantza publiko-komunitarioa eta interseksionalitatea elkarrizketan jartzeko premisa edo hipotesi nagusia izan da haien arteko elkar-elikatzea ezinbestekoa dela bien funtzionamendu egokirako. Izan ere, gobernantza publiko-komunitarioak interseksionalitatea behar du desberdintasun sozialen konplexutasunera heltzeko tresna heuristikoa (Bilge, 2009) den heinean. Eta interseksionalitateak, politika publikoetan ezarrita eta garatuta izateko, gobernantza publiko-komunitarioa behar du «lurraldearen eta bertako problematiken zein esperientzien ezagutza hurbila» behar duen heinean (Coll-Planas eta Solà-Morales, 2019).

Bata bestearen beharra dutelako beste erakusle bat Martinez-Garciak eta Martinez-Palaciosek (2019, 14-15. or.) azaltzen dutena da. Diotenez, interseksionalitateak esperientzia parte-hartzaileei, oro har, erakusten die euren inguruko errebisio kritiko bat egin ezean, euren potentzialitate eraldatzailea galduko dutela, dominazioak birsortuko dituztela, alegia. Izan ere, azken hamarkadetan prozesu parte-hartzaileen instituzionalizazioa jazo da. Eta horren aurrean, kritika feministetatik begirada erreflexiboa ezarri da; azalduz «egitura horietan bizirauten duten pribilegioak, espazio publikoa okupatu ohi dutenen eskaerak eta diskurtsoak hobesten dituztela» (*idem*).

Bide horretan, eta aintzat hartuta, gobernantza publiko-komunitarioaren erakunde publikoek, komunitateak eta ekonomia sozial eraldatzaileko enpresek edo kooperatibek parte hartzen dutela, ezinbestekoa izango da interseksionalitatea modu integralean ezartzea. Hau da, begirada interseksionala eta jarrera erreflexiboa ezinbestekoa izango da prozesu parte-hartzailean inplikaturako pertsona eta eragile guztien gain. Baina baita dispositibo parte-hartzaileak diseinatzeko orduan edota gobernu forma honen esperientziak abiatzerakoan ere. Era berean, inplikaturako erakundearen eta eragileen artean dauden botere-harremanen inguruan begirada kritikoa ezartzea ezinbestekoa da.

Aipatu moduan, gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko elkarrizketatik sakontze demokratikorako esparru heuristikoa zabaltzen dela antzeman da. Esparru horretan eraldaketa soziala, ahalduntzea eta gatazka elkarrekintzan aritzen dira. Artikulu honen xedea elkarrekintza horien potentzialitateak arakatzea da. Hots, ikerketa-lerro berrietarako aukera zabaltzea. Bide horretan, esparru heuristikoko horretarako markoa interpretagarri baten proposamena egiten da. Ekarpenez osatzeko eta aberasteko amoz.

Helburu horretan aurrera egiteko, interseksionalitatearen eta gobernantza publiko-komunitarioaren inguruko hurbilpen teorikoa egingo da eta ondoren horien arteko hartu-emanak arakatuko dira. Esan bezala, hiru dimentsiotan: erladaketa sozialean, ahalduntzean eta gatazkaren ulerkeran, hain zuzen ere. Horien artean sakontze demokratikorako esparru heuristikoa proposatzen da; eta horren inguruko gogoeta modu irekian egiten da.

1. Argitalpen honen egilea Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdiaren onuraduna da EHU (2022ko deialdian).

2. Interseksionalitatea

Artikulu honen helburua ez da interseksionalitatearen genealogietan sakontzea, ezta, aurrerago azalduko den, interseksionalitatearen edo zapalkuntzen inbrikazioa bezalako adieren artean hautaketa egitea. Baina artikulu honek, oinarrituta dagoen doktorego-tesiak egiten duen moduan, interseksionalitatearen genealogiak, *pentsamendu-ekintza* modura, askotarikoak direla mahaigaineratu nahi du. Baita, Maria Rodó-Zaratekin (2021) bat eginez, ezagutzaren ekoizpena leku eta gorputz anitzetatik datorrela ere. Hala izanik, feminismo beltzetik edota komunitariotik eraldaketa sozialaren, ahalduentzearen eta gatazkaren ulerkerari egiten zaion ekarpena azpimarratu beharrekoa da.

2.1. Interseksionalitatearen genealogiak

Interseksionalitatearen genealogiak askotarikoak dira; munduan dauden gorputzak eta lurraldeak bezain askotarikoak. Zentzu horretan, Rodó-Zaratek (2021, 147. or.) horiek kokatzeko ahalegina egiten du; botere-desorekak identifikatzeko bidea errazteko. Hala ere, interseksionalitatearen genealogiek edateko iturburu komuna dute: kolonitatearen ondorioz emakume arrazializatuek bizitako arrazakeria. Hala izanik, bizipen horiek gorpuztutako emakume arrazializatu eta hegoaldeetarrak dira interseksionalitatea *pentsamendu* gisa elikatu dutenak (Platero, 2012). Horregatik, hain zuzen, genealogiak kokatzea garrantzitsua da «abiapuntu gisa azalpen-marko monofokalak» ekiditeko eta «feminista beltzen proposamen interseksionalak lehenagoko tokian tokiko garapenekin harremanetan jartzea» ahalbidetzeko, alegia (Rodó-Zarate, 2021, 147. or.).

Interseksionalitatearen genealogien kokapena egiteak esan nahi du *pentsamendu-ekintza* modura ulertzea; eta bertatik arakatzea emandako urratsak. Bide horretan, Hancock (2016) *pentsamendu* interseksionalaz mintzatzen da Estatu Batuetako akademiatik haratago zabaltzeko eta Crenshaw-k 1989an kontzeptuari izena eman aurretik *pentsamendu* modura garatu zela adierazteko. Bide berean, Rodó-Zaratek (2021) azaleratzen du Estatu Batuetatik kanpo interseksionalitatea *pentsatu* dela, eta baita ekin zaiola ere. Horrela, herri-mugimenduen ekarpenari aitortza eginez eta ezagutzaren ekoizpena akademiatik haratago doala adierazteko.

Beraz, horren adierazle modura, besteak beste, 70eko hamarkadan Bostoneko emakume afro-amerikarrek osatutako Combahee River Collective taldearen kasua dugu. Horiek «mugimendu feministan arrazakeriaren aurka eta giza eskubideen mugimenduan sexismoaren aurka borrokatzeko helburuarekin» sortu zuten taldea (Rodó-Zarate, 2021, 135. or.). Hala 1977ko Manifestu Feminista Beltzean, interseksionalitatearen *pentsamendu-ekintza*ren garapenean, feminismoa, antiarrazakeria eta marxismoa harremanetan jartzen dituzte, interseksionalitatea tradizio gisa ezaugarrituz (Platero, 2020; Rodó-Zarate, 2021; Zugaza, 2023).

Abya Yalako dekolonitatea, feminismo beltzetik eta interseksionalitatearen adieratik abiatuz, *zapalkuntzen inbrikazio*az solasten da. Hala, generoaren, arrazaren eta heterosexismoaren arteko elkarrekintzek sortzen dituzten bazterketak mahaigaineratzen ditu. «Inbrikazioa ez da esperientzien batuketa edo kategoria

analitikoen elkargunea osatzen duten aldagaiak. Esperientzia horiek historian zehar kolonialismotik gaur egungo kolonialtasunera nola igaro diren eta klase, sexu eta sexualitatean pribilegiotik izan ez duten subjektuetan nola bizi izan diren ulertzea» baizik (Bidaseca eta Vázquez, 2011, 105. or.).

Ikusten den moduan, interseksionalitatearen genealogiek teoria eta praktika uztartu dituzte, lehenengoa praktika eraldatzailerara bideratuz. Hortaz, herri-mugimendu autonomoetan ohikoa den konfrontazioaren bidez, eraldaketa soziala sustatuz, heterosexismoaren, arrazakeriaren edota klasismoaren aurkako pentsamenduak eta ekintzak garatu dituzte. Bide batez, zapalkuntza-ardatz horiek zeharkatzen dituzten emakumeak eraldaketa sozial horren subjektu aktibo bihurtu eta ahalduntze-prozesu batean murgildu dituzte. Esan daiteke, beraz, interseksionalitatea bere hastapenetatik, *pentsamendu-ekintza* gisa, zeharo lotuta dagoela aipatutako hiru esparruekin.

2.2. Interseksionalitatearen definiziorantz

Aipatu legez, ezagutzaren ekoizpena leku ugariatetik dator. Jakinduria horrek duen jatorriaren arabera, hura zilegitzeko edo deuseztatzeko bitartekotzat hartzen da interseksionalitatea «definizio, diziplina eta metodologia zehatz batean sartzeko» saiakera (Collins, 2015; Crenshaw, 2016; Bilge, 2016; hemen ikusita: Zugaza, 2023, 48. or.). Ondorioz, gorputz zuri eta akademikoen ideiak gorputz arrazializatu eta ez-akademikoen ideien gainetik jarritz, interseksionalitatearen definizio hertsia baten atzean, zenbait botere-desoreka birsortuko lirakeke. Hori ekiditeko saiakeran, Collinsek (2015, 3. or.) «Intersectionality's Definitional Dilemmas» artikuluan definizioak modu zabalean ulertzeko ahalegina egiten du: «Definizioak analisi baten azken puntua baino areago, ikerketarako abiapuntuak dira». (...) «Amaiera irekia uzten duten ikerketen elkargunea» da interseksionalitatea (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013, 788. or.). Beraz, Uxue Zugazak definizio batean baino areago, «arakatze enpirikorako eta arautzailerako marko interpretagarri batean» arakatzeko beharra plazaratzen du.

Chok, Crenshaw eta McCallek (2013, 795. or.) diotenez, marko interpretagarri hori «sentsibiltate analitikoak» ezaugarritu behar du; horrela ulertzen dutelako interseksionalitatea. Izan ere, horrek eskaintzen du «berdintasunaren, desberdintasunaren eta honek boterearekin duen harremanaren inguruan, modu interseksionalean pentsatzeko» aukera (Cho *et al.*, 2013, 795. or.).

Interseksionalitatea pentsamendu kritikorako tresna baliagarria izateko bidean, Collinsek (2017, 20. or.) kontzeptua tresna heuristiko modura ezaugarritzen du; era horretako azterketak egiterakoan aintzat hartzeko:

1. Arrazakeria, sexismoa, klase-esplotazioa eta antzeko zapalkuntza-sistemak elkarri konektatuta daude eta elkar eraikitzen dute.
2. Desberdintasun sozialen konfigurazioak zapalkuntzen testuinguruan osatzen dira.

3. Arazo sozialen ikuskerek islatzen dute ezen aktore sozialak testuinguru historiko eta sozial zehatzen botere-harremanen barruan kokatuta daudela.
4. Zapalkuntzen intersekzioan, norbanakoak eta taldeak, modu ezberdinean kokatuta daude. Fenomeno sozialen inguruan, ikuspuntu bereizgarriak dituzte.

Marko interpretagarri horrek, analisi interseksionalerako hurrengo sei ideiak aintzat hartu beharko ditu, kontzeptua tresna analitiko gisa baliatzeko heldulekuak baitira (Collins eta Bilge, 2019, 34-38. or.):

1. Desberdintasun soziala. Interseksionalitateak desberdintasun sozialen ulerkerari konplexutasuna ematen dio, marko monofokaletatik haratago eramanez. Izan ere, desberdintasun sozialak harremanean eta elkarrekintzan aritzen diren aldagai ezberdinen ondorioz sortzen edota birsortzen direla azalera du.
2. Ikuspegi erlazonala. Interseksionalitateak begirada bazterketa-prozesuak edota botere-desorekak sortzen dituzten aldagaien arteko harremanean jartzen du.
3. Boterea. Interseksionalitateak boterea modu dinamikoan eta harremanean ulertzen du. Hau da, botereak bere horretan existitzeko aldagaien arteko harremana beharrezkoa du; horretan oinarritzen baita.
4. Testuinguru soziala. Interseksionalitateak mundua eta bertan sortzen eta birsortzen diren botere-harremanak eta bazterketak modu dinamikoan eta testuingurutan ulertzen ditu. Hau da, sexismoaren edota arrazakeriaren egiturazko dimentsioa aitortzen du, baina horien elkarreragina testuinguru zehatzetan aztertzeke gaitasuna eskaintzen du. Testuinguru politiko, sozial eta historiko bakoitzean dominazio-sistemek forma eta praktika ezberdinak har ditzaketelako.
5. Konplexutasuna. Analisi interseksionala konplexutasuna eskatzen du, gainerako bost ideiek hori eskaintzen baitiote tresna heuristikoki. Era berean, «interseksionalitatea bera munduaren konplexutasuna ulertzeko eta aztertzeke modu bat da».
6. Justizia soziala. Justizia sozialak ez du, berez, interseksionalitatearen helburua izan behar. Baina desberdintasun sozialen azterketa eta deuseztaketa bilatzeak justizia sozialera eta hark eskatzen duen konplexutasunera hurbiltzen ditu.

Azterketa eta hausnarketa kritiko interseksionalak egin ahal izateko Collinsek (2017) eta honek Bilgerekin (2019) proposatzen duen ezaugarritze eta heldulekuak agerian uzten dute, berriz ere, kontzeptuari eraldaketa berezkoa zaiola. Definizio batera gerturatzeko eta, kontzeptua ulertzeko, marko interpretagarri bat sortzeko saiakeran, ikusten da botere-desorekak identifikatzeko eta deseraikitzeke xedea.

3. Gobernantza publiko-komunitarioa

3.1. Gobernantza publiko-komunitarioaren aurrekariak

Gizarteak egun aurkeztzen dituen konplexutasunetara hurbiltzeko ere gobernantza publiko-komunitarioa aterabide gisa plateatzen da sarritan. Dena den, horretan sakondu aurretik honen aurrekariak, laburki bada ere, azalduko dira.

XX. mendeko 80ko hamarkadatik demokraziaren eta zerbitzu zein ondasun publikoen pribatizazioa areagotzen ari den honetan (Caamaño, 2021, 12. or.), egun, gure hiriak hiru alor nagusik antolatzen dituzte: «neoliberalizazioa», «subsidiarizazioa» eta «demokratizazioa». Lehenengoak zerbitzu publikoen azpikontratazioari erreferentzia egiten dio; administrazio publikoak zerbitzu horiek enpresa pribatuen esku uzten dituelako. Bigarrenak baliabide berdinekin gero eta eskaera sozial gehiagori aurre egin behar dieten udalei egiten die erreferentzia. Eta demokratizazioa aurreko biei erantzuna emateko asmoz agertzen da. Izan ere, herri-mugimenduek, eta sare komunitarioek oro har, gero eta «kudeaketa kolektiborako modu» gehiago proposatzen dituzte. Baita administrazio publikoarekin elkarlanean aritzeko ere (Forné, 2020).

Demokratizazioaren alorrean, prozesu demokratizatzaile edo sakontze demokratikorako prozesuak sarritan aipatzen dira. Artikulu honetan, horiek botere politikoaren birbanaketa egiten duten prozesu gisa ulertzen dira. Demosaren zabalpena, ahalduntzea eta erabakitze-ahalmena bultzatzen dituzten prozesu gisa, alegia.

Demos horren zabalpenarekin lotuta, aipagarria da, Mérida eta Telleriaren (2021, 95. or.) arabera, egun ezagutzen dugun udalgintza 2014an sortu zela, desafekzio politikoari eta krisi ekonomikoari erantzuteko, M15ean sortutako mobilizazioetan islatu zen moduan. Era berean, Fornék (2020) azaltzen duenez, mugimendu horren parte batek instituzioetan aldaketa politiko bat sustatu zuten herri-zerrendak abiatu zituen. Horiek, nagusiki, kooperatibismotik, feminisमतik, ekologisमतik, asoziazionisमतik eta sindikalismo sozialetik etorritako eragileek osatuta zeuden. Hala, udalgintza eraldatzailea dimentsio instituzionaletik haratago ulertzen zuten, eraldatzailea izateko demokrazia erradikalaren aldeko apostua beharrezkoa zela aldarrikatzen baitzuten.

Hala ere, ezagutzen dugun gobernantza parte-hartzaile oro ez da behetik gorako prozesu batetik abiatu. Fungen (2015, 519. or.) arabera, prozesu parte-hartzaile instituzionalizatuen gorakadak justizia sozialetik urruntzea ekarri zuen, erakunde publikoen praktikak zilegitzeko ahaleginak areagotu ziren heinean. Izan ere, horrek justizia soziala erdigunetik aldentzea ekarri zuen, «baliabideen birbanaketa edo ondasun eta zerbitzu publikoen sarbidea orekatzeko» helburutik aldendu baitzen. Baina, esan bezala, azken hamarkadetan, herri-mugimenduetatik dator instituzioak demokratizatzeko eta eraldatzeko saiakera; nahiz eta horrek erakunde publikoetatik gizarte zibilaren iritzia kooptazioaren arriskua dakarren (Tormey 2015, Baiocchi eta Ganuza 2016, Sintomer 2018, Font eta García-Espín 2019; hemen ikusita: Bua eta Bussu, 2021, 716-717. or.). Eta horrek, aditzera eman dezake udalgintzaren

helburu nagusietako bat eraldaketa soziala dela, erakunde publikoetan zein gizarte zibileko eragileetan (Roth *et al.*, 2019).

Baina egun ezagutzen dugun, eta artikulua honetan erdigunea hartuko duen gobernantza-eredu hau eraldatzailea izatetik eta demokrazia erradikalaren aldeko apostua egitetik haratago, zer da? Zein dira esperientzia horien ezaugarriak? Kontzeptuaren definizioan eta ezaugarritzean sakontzeko, Kataluniako *Xarxa d'espais comunitaris* sareak² lau alor barne hartzen ditu gobernantza publiko-komunitarioa praktikan jartzeko orduan: 1) Demokrazia eta parte-hartzea. Bertan esperientzien oinarria sortzeko «Demokrazia zuzena, horizontaltasuna, gardentasuna, erantzunkidetasuna/konpromisoa, autokontrola/autoebaluazioa, ahalduntzea, autonomia eta independentzia» aintzat hartzen dituzte. 2) Sostengarritasuna eta prozesuen zaintza. 3) Lurraldetasuna. Besteak beste, esperientziarekiko gertutasunari eta inplikazioari erreparatzen diete. 4) Eragina eta gizarte-itzulera. Kontu-ematerako eta esperientzien eragina aztertzeko alorra.

3.2. Gobernantza publiko-komunitarioa kokatzen

Gobernantza publiko-komunitarioa botere eta praktika eraldatzaileei lotuta egotearekin lotzen da (UCLG, 2019). Baina gobernu forma honen barruan izaera ezberdinak daude, eta izaera horien arabera, gehiago edo gutxiago hurbiltzen zaio eraldaketa horri. Kasu honetan, gobernu forma honen barruan kokatzen den *gobernantza demokratiko anarkokomunitarioan* oinarrituko gara. Hau baita helburu eta praktika eraldatzaileetatik hurbilen dagoena.

Dena den, horretan sartu aurretik, jakin beharra dago Bua eta Bussuren (2021, 717. or.) arabera, bi noranzkotan izan daitekeela elkarlan publiko-komunitarioa: goitik beherakoa eta behetik gorakoa. Lehenengoa «gobernantzak bultzatutako demokratizazioa» (GDD: Governance-driven democratization) izenez ezagutzen da (Warren, 2014); eta bigarrena, aldiz, «demokratizazioak bultzatutako gobernantza» (DDG: Democracy-driven governance) bezala. Lehenengoak «goitik beherako logikari jarraitzen dio» eta gatazkaren aitortza egin beharrean kontsentsua lehenesten du. Izan ere, instituzioek gidatutako gobernantza da; helburu nagusia zilegitasun-krisiari aurre egitea eta politika publikoen eragina biziko duten herritarrak horietan inplikatzeko izanik (Bua eta Bussu 2021, 718. or.).

Bigarren ereduari dagokionez, «demokratizazioak bultzatutako gobernantza», hain zuzen, behetik gorako prozesua da. Beraz, «partaidetzazko egituren erabilera helburu eraldatzaileetara bideratzea aldarrikatzen dute» herri-mugimenduen eta gizarte zibilaren inplikazioaren bidez (Bua eta Bussu, 2021; hemen aipatuta: Azkune, Zubiaga eta Etxeberria, 2024, 1040. or.). Ekintza kolektiboaren bidez sortzen den gobernantzari egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere. Herri-mugimenduek Estatuaren dinamikaren parte izateko saiakera gisa ulertzen da; «eraldaketa-erako estrategia gisa gobernantza parte-hartzailea erradikalizatzeko helburuarekin» (Bua eta Bussu 2021, 719. or.).

2. Kataluniako esperientzia komunitarioak koordinatzen dituen sarea da.

eragiteko aukera probestu beharko luke. Horrek administrazio publikoaren eta gizarte zibilaren arteko boterearen birbanaketan lagunduko luke; horrela demokratizazioan sakonduz (Bua eta Bussu, 2021, 731. or.).

4. Gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko hartu-emanak

4.1. Bi kontzeptuen arteko hartu-emanerako esparruak

Behin bi kontzeptuen testuinguratze eta ezaugarritze nagusia eginda, azpimaragarria da, demokrazia parte-hartzailearekin interseksionalitatea elkarriketan jarritz gero, eraldaketa sozialera bideratutako dimentsio heuristikoa³ araka litekeela (Collins, 2017 eta Martinez-Palacios eta Martinez-Garcia, 2019). Bide horretan, Collinsek «The difference that power makes: intersectionality and participatory democracy» artikuluan, hain zuzen, bi kontzeptuak elkarriketan jartzeko bideak arakatzeko ditu. Eta Martinez-Garcia eta Martinez-Palacios (2019, 14. or.) dioten moduan, bertatik antzeman daiteke bien aldarrikapenak eta ekintzak eraldaketa sozialerako bidea hartzen dutela. Azken finean, gobernantza publiko-komunitarioa demokrazia parte-hartzaileari bide ematen dion gobernu forma bat da. Beraz, horretan arakatu nahi izan da eta, artikulua honetan, antzeman da ahaldundutze-prozesuetarako bidea eta gatazkaren irakurketa konpartitzen dutela. Izan ere, hurrengo orrialdeetan aurkeztuko den moduan, ahaldundutze-eredu erradikalen helburua eraldaketa soziala da; eta hori lortzeko gatazka beharrezkoa da; eraldaketari berezkoa zaiolako. Funtsean, gatazkaren helburua ere eraldaketa soziala delako. Horregatik oraingoan hiru alor horien arteko esparru heuristikoa arakatu nahi izan da. Eta horietan oinarrituko da gobernu forma honen eta interseksionalitatearen arteko elkarriketa.

Esan bezala, gobernantza publiko-komunitarioa botere eta praktika eraldatzaileei lotuta egotearekin lotzen da. Hala nola mugimendu feministarekin edo elkarte eta bizilagunen sareekin. Eta mugimendu feministaren aldarrikapenekin bat egiten du biek instituzio horizontalagoen, gardenagoen, demokratikoagoen eta transbertsalagoen beharra plazaratzen dutelako (UCLG, 2019). Beraz, udalgintza eraldatzaile eta demokratiko batek, politika publiko interseksionalen garapenak bezala, aldaketa erradikal baten beharra du, instituzio publikoetatik egiteko eta izateko modu berriak ezarriz. Horretarako beharrezkoa da komunitateak bultzatutako eta instituzioek lagundutako politika askatzaileei lekua egingo dieten espazio autonomoak garatzea (Forné, 2020).

4.1.1. Eraldaketa soziala

Aipatu moduan, biek eraldaketa soziala bilatzen dute «indarrean dagoen eredu modu integral eta erradikalean ezbaian jarritz, eta testuinguru bakoitzean dominazio-logiken desaktibazioa sustatuz» (Martinez-Garcia eta Martinez-Palacios, 2019, 14.

3. Heuristika kontzeptu batean arakatzeko aukera eskaintzen duen tresna da. Kasu honetan, beraz, eraldaketa sozialera bideratutako dimentsio heuristikoa horrek eskaintzen duen markoan arakatzeko eta sakontzeko aukerari erreferentzia egiten dio. Horrek berak arakatzeko tresna modura balio duela esan nahi du, hain zuzen ere.

or.). Funtsean, hori baita eraldaketa soziala, De Haasen (2020, 15. or.) arabera, honek «gizartean aldaketak islatzen ditu maila estruktural sakonean. Existitzen diren eredu sozial guztiak birkonfiguratzeko ditu».

Bide batez, interesgarria suerta daiteke aipatzea eraldaketa soziala nahiz interseksionalitatea *pentsamendu-ekintza* gisa, lotuta daudela artearen dimentsio politikoarekin. Azken finean, artea sarritan eraldaketarako eta aldarrikapenerako bidea izan da. Ingeborg Bachmann poetak esan bezala, arteak, oro har, «pertzepzio berri batean hezten gaitu, sentimendu berri batean, kontzientzia berri batean». Bide horretan, feminismo beltzetik etorritako zenbait sortzailek nortasuna kategoria ezberdinen elkarrekikotasunetik eraikitzen zela adierazi zuten. Adibide ezagunenetakoa Donna Kate Rushinena⁴ da; 1981ean *The Bridge* olerkiaren bidez, emakumea eta beltza izatearen errealtatea adierazi zuen; emakumea edo beltza izatean oinarritzen ziren aldarrikapenen aurrean. Bertan, sexuaren eta arrazaren arteko bereizketa horrek sortzen zituen hutsuneetan bizitzeak eragiten zizkion minez hitz eginez. Adieraziz bera ez zela beltza edo emakumea; baizik eta bera emakume beltza zela. Hala, interseksionalitatea *pentsamendu-ekintza* gisa azalertzeko kontzientziaren edota pertzepzioaren sorreran ale bat jarri zuen bere poemaren bidez. Horrek, berriz ere, erakusten du interseksionalitatea bere horretan eraldatzailea dela.

Horregatik, hain zuzen, gobernantza publiko-komunitarioaren izaera eraldatzailea azalertzeko, begirada eta tresna interseksionalak ezinbestekoak izango dira. Lehenago, demokratizazioa demosaren zabalpenetik igaro behar dela esan badugu, demos horretan existitzen diren subjektu politiko ezberdinak parte izateko interseksionalitatea beharrezkoa da. Eta horrekin esan nahi duguna da, demos horren ezaugarri kualitatiboak erreparatu behar diegula kuantitatiboak baino, hauen garrantzia aitortuta, noski. Ez dela horrenbeste zenbat herritarrengana heltzen ari den elkarlan parte-hartzaile zehatz bat, baizik eta zein diren pertsona horiek. Gizarte zibileko desjabetuak diren edo adin, klase ertaineko gizon zuriak diren. Eta ez diogu soilik elkarlan horren ezarpenari begiratu behar. Hau da, ez da soilik horrek ekar dezakeen prozesu parte-hartzailean dominazio-sistemak ez-birsortzeko mekanismoak jartzea. Bada ere elkarlan horren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan dauden pertsonen eta parte izateko moduen erreparatzea.

Bide horretan, eta aintzat hartuta gobernantza publiko-komunitarioak erakunde publikoek, komunitateak eta ekonomia sozial eraldatzaileko enpresek edo kooperatibek parte hartzen dutela, ezinbestekoa izango da interseksionalitatea modu integralean ezartzea. Hau da, begirada interseksionala eta jarrera erreflexiboa ezinbestekoa izango da prozesu parte-hartzailean inplikaturako pertsona eta eragile guztien gain. Baina baita dispositibo parte-hartzaileak diseinatzeko orduan edota gobernu forma honen esperientziak abiatzerakoan inplikaturako erakundeak eta eragileak artean dauden botere-harremanen inguruan begirada kritikoa ezartzea ere. Izan ere, Martinez-Garciak eta Martinez-Palaciosen (2019, 14-15. or.) diotenez, interseksionalitateak esperientzia parte-hartzaileei, oro har, erakusten die euren inguruko errebisio kritiko bat egin ezean, euren potentzialitate eraldatzailea galduko

4. Moraga, C., eta Anzaldúa, G. (1981). History is a weapon. The Bridge Poem. <https://www.historyisaweapon.com/defcon1/thebridgepoem.html>

dutela, dominazioak birsortuko dituztela, alegia. Izan ere, azken hamarkadetan prozesu parte-hartzaileen instituzionalizazioa jazo da. Eta horren aurrean, kritika feministetatik begirada erreflexiboa ezarri da; azalduz «egitura horietan bizirauten duten pribilegioak, espazio publikoa okupatu ohi izan dutenen eskaerak eta diskurtsoak hobesten dituztela» (*idem*).

Esperientziok eraldatzaileak izateko, arrazaren, klase sozialaren, generoaren edota aniztasun funtzionalaren antzerako botere-egiturak gorpuzten dituztenen agentzia- eta erresistentzia-gaitasuna aktibatzea eskatzen du. Interseksionalitateetik dominazio-matrizearen tresna proposatzen da halako botere-egiturak irudikatzeke. Collinsek (2017, 24. or.) honela definitzen du tresna heuristikoki hori: «Matrize batek erreferentzia egin diezaioke zerbait garatzen den ingurune kultural, sozial edo politikoari, edo zerbait moldeatzen duen edo zerbaiti forma ematen dion molde bati (...) edo beste zerbait garatzen edo eratzen duen zerbaiti (egoera bat edo baldintza-multzo bat, adibidez)». Horrek «matrizearen kontstruktua egitura egituratzaile gisa proiektatzen du» (*idem*). Collinsek, horrela, dominazio-ardatz horien identifikazioaren bidez, subjektuen eragiteko eta ahaldunderako gaitasuna areagotzen dela adierazten du.

Gobernantza publiko-komunitarioaren aldetik edo instituzioak murgilduta dauden prozesu parte-hartzaileetatik, berriz, Moralesek (2016, 19. or.) hainbat ikaspen uzten dizkigu prozesua eraldatzailea izateko:

- Behetik gorako prozesua izatea. Kontrakoak hesi implizituak jartzen ahal dizkio eraldaketa sozialari, botere-harremanen inguruko hausnarketa eta esku-hartzea oso mugatua izan daitekeelako. Zaila eta korapilatsua izan baitaiteke botere-posizio batetik botere-harremanen eraldaketarako prozesu bat abiatzea.
- Herri-partaidetza edota botere-harremanak kontzeptuak, besteak beste, edukiz betetzea ezinbestekoa izango da. Bestela, interseksionalitatearekin gerta-tzen den moduan, arriskua dago kontzeptua banalizatzeko, edukiz husteko eta beraren erradikaltasuna deuseztatzeko (Martinez-Palacios eta Martinez-Garcia, 2019). Funtsean, haren dimentsio eraldatzailea lausotzeko eta mugatzeko arriskua.
- Erakundeen eta komunitatearen arteko hartu-emanak orekatu behar dira. Hau da, komunitateari boterea emateko erakundeei kendu behar zaie; eta horrek ekar ditzakeen gatazkei lekua eman. Dioenez, herri-mugimenduek halako prozesuetan gatazkari lekua aitortu ohi dioten artean, erakunde publikoek gatazka deuseztatzeko bideak bilatu ohi dituzte. Auzia ez da gatazka edo elkarlana aukeratzea, edo zein den hobe eza zabaidatzea, ezpada horiek bideratzeko zer baldintza eta tresna eskuratzen diren. Hala ere, ezin da ahaztu boterearen birbanaketa gatazkatsua izan ohi dela, beraz, prozesu parte-hartzaile eraldatzaileak abian jartzeko ezinbestekoa izango da sortzen diren gatazkek kudeatzeko eta sostengatzeko lekua egitea.

Aurrerago gatazkaren dimentsioan eta haren ulerkeran sakontzen jarraituko da, horretara bideratutako atalean, hain zuzen ere. Baina, eraldaketa sozialaren atalarekin amaitu aurretik, garrantzitsua da azpimarratzea ahalduntze-prozesuekin zeharo lotuta dagoela.

4.1.2. Ahalduntzea

Biewener eta Bacquéren (2016, 21. or.) arabera, ahalduntze-eredu erradikalari dagokionez, ahalduntze indibidualaren zein kolektiboaren helburua eraldaketa soziala da. Horren oinarria kapitalismoa auzitan jartzea da; «talde estigmatizatuen existentziatik abiatzen da, horiek aitortuak izateko eta autodeterminaziorako gaitasuna izateko saiakeratik», hain zuzen ere. Psikologia komunitariotik ere ahalduntzea eraldaketa sozialarekin lotzen da (Morales, 2016, 27-28. or.). Honela definitzen du Rappaportek (1984) ahalduntzea, psikologia komunitarioaren pentsalari nagusietako batek: «Prozesu bat da eta horren bidez, pertsonak, erakundeak eta komunitateak euren bizitzak menderatzen dituzte, ingurune berriak sortzen dituzten banako, taldeko eta komunitateko baliabideak garatuz, bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuz» (Hemen aiptuta: Morales, 2016, 27-28. or.).

Ahalduntze-prozesuei dagokienez, interseksionalitateak, ikerketa kritiko modura ulertua izateko, bi ezaugarri bere egiten ditu: «(1) Bizitza eta giza-jarrera ulertzeko sistema, zeina desjabetuen bizipenetan zein borroketan oinarrituta dagoen. (2) Teoria praktikarekin erlazionatzeko tresna garrantzitsua izatea, komunitateak zein pertsonak ahalduntzeko oso erabilgarria izan daitekeena» (Collins eta Bilge, 2019, 43-44. or.).

Gobernantza publiko-komunitarioaren kasuan, ahalduntzailea izateko, honen izaera goitik beherakoa den edo behetik gorakoa den aztertu behar da. Izan ere, behetik gorako prozesuetan posibleagoa da eraldaketa- eta ahalduntze-prozesuak jasotzea goitik beherako prozesuetan baino. Eraldaketa sozialaren atalean azaldu denez, prozesua eraldatzailea eta ahalduntzailea izateko boterearen birbanaketa ekarri behar du berekin; eta beraz, goitik beherako prozesua izateak boterearen birbanaketa zailtzen du; boterea duenak (instituzioak) boterea galtzeko prozesua abiatzea zaila eta korapilatsua izan daitekeelako (Morales, 2016, 19. or.). Hau ulertzeko, begirada interseksionala prozesu parte-hartzaileetan jarri ez ezik, kudeaketa publiko-komunitarioko esperientziak abiatzeko jazotzen diren fase guztietan ere jarri behar da. Hau da, prozesuaren diseinuan eta inplementazioan ere bai. Horrek kudeaketa publiko-komunitarioa aurrera eramaten duten eragileek izaera ezberdinak aintzat hartzea eskatzen du. Beraz, erakunde publikoen eta gizarte zibilaren artean botere-desorekak daudela, eta prozesua demokratizatzailea izatea nahi bada botere-desoreka horiek identifikatu eta orekatu beharko dira.

Era berean, «partaidetza-prozesuen erabaki-mekanismoek gain, hurbiltasunezko harreman-estrategia bat behar du», herritarren partaidetza ahalik eta eskuragarriena egiteko (Morales, 2016, 202. or.). Eta horretarako, bidelagun gisa interseksionalitatea izan beharko du. Ahalduntze-prozesu horren parte izango diren pertsonen nahiz komunitatearen konplexutasuna ezagutzeko eta horretan esku hartzeko. Izan ere, Moralesek (2016, 200. or.) berak dioen moduan: «Herritarrak ez dira subjektu

berdinak eta homogeneousak; aitzitik, desberdinak eta askotarikoak dira, eta herritarrek ahalduentzeko estrategiak planteatzeak desberdintasun horiek aintzat hartzea eskatzen du».

4.1.3. Gatazkaren ulerkera

Gatazkaren ulerkera ahalduentze-prozesuekin eta eraldaketa sozialarekin lotuta dago, gatazka eraldaketa sozialerako tresna gisa uler daitekeelako, eta horrek ahalduentze-prozesuetan eragiten du. Baina horretan sakondu aurretik, zergatik da beharrezkoa gatazka? Janet Biehl (2018, 87. or.) AEBko anarkista izateaz gain, ekologia sozialaren pentsalari nagusietako bat da. Aipatzen duenez, «gatazkek berezkoa du politika, honen *sine qua non* baldintza bat da; bere existentziaren ezinbesteko premisa». Beti egongo da zerbaitekin ados ez dagoena, eta hori, polisarentzat seinale ona da, disidentziak azaleratu daitezkeelako seinale. Izan ere, kontsentsu bidezko prozesuetan ere gerta daiteke, manipulazioaren bidez, disidenteak posizio nagusietara bideratzen saiatzea. Baita hausnarketa eta erabakitze-esparru egituratuetatik kanpo posizio horietara bultzatzea ere (*idem*).

Arestian azaldu denez, goitik beherako prozesuetan gatazka ekidin eta kontsentsuaren edo elkarlanaren bilaketa egin ohi da, eta behetik gorako prozesuetan, aldiz, eraldaketa sozialerako aukera eskaintzen duen bitarteko gisa ulertzen da gatazka. Batez ere *ekintza komunitario autonomoetan* (Morales, 2016) edo *gobernantza demokratiko anarkokomunitarioan* (Bua eta Bussu, 2021). Horren adierazle gisa Alinsky-k (1989, 35. or.), soziologoa eta komunitateen antolakuntzan aditua zein aritua zenak, eraldaketaren inguruan egin zuen definizioa dugu: «Eraldaketak mugimendua esan nahi du. Eta mugimenduak frikzioa. Soilik existitzen ez den mundu abstraktu baten frikziorek gabeko ezerezean gerta liteke mugimendu edo eraldaketa hori gatazkaren frikzio urratzailerik gabe». Hala ere, Moralesek (2016, 131. or.) azaltzen duen moduan, halako prozesuen sustatzailea administrazio publikoa den edo ez den esatea baino garrantzitsuagoa da dagokion betekizuna nola egiten duen zehaztea. Hau da, «zenbateraino herritarren jarrerak aitortzen dituzten eta gatazka-egoerei nola egiten dieten aurre erabakigarria izan ohi da» prozesu parte-hartzaileak hartuko duen izaeran eta bere dimentsio eraldatzailean.

Era berean, Moralesek (2016, 199. or.) dioten moduan, ez bada gatazkarik sortzen, lantzen ari diren gaiak interes gutxikoak direlako edo botere-harremanetan ezartzen diren aldaketek dimentsio eraldatzaileak ez dutelako izango da. Beraz, gatazka agertzea prozesu parte-hartzailearen dimentsio eraldatzailea neurtzeko parametro bat izan daiteke. Eraldaketari lotuta, tradizio askatzailea «konpartitzen dugun munduaren eraldaketa libre eta kolektiboarekin lotzen da (...) Askatzea gure existentziarako baldintzak kolektiboki sortu eta eraldatu ahal izatea litzateke» (Garces, 2013, 22. or.).

Premisa horretatik, emantzipazioa «mundu komun batean ko-inplikatzeko gaitasunetik» igarotzen da. Tradizio askatzaile honek «guaren esperientzia autonomo eta antagonikotik» ulertzen du komunaren kontzeptua (Garcés, 2013, 22-23. or.). Gu dinamiko, aldakor eta testuinguratu horren eraikuntza estuki lotuta dago gatazkarekin. Jule Goikoetxea filosofoak, pentsalariak eta feminista materialistak

(2024, 4. or.) dioenez, «dominazio-sistemak dituen mundu batean gaudenez, gatazka dominazio-sistema bortitzen bidez sortzen eta birsortzen da. Horrek esan nahi du, egungo dominazio-sistemak askatzaileagoak bilakatzeko, gatazka bidez egin behar dela». Beraz, funtsean, eraldaketa sozialerako eta prozesu ahalduntzaileak lortzeko bidea gatazka dela esan nahi du.

Eraldaketa sozialaren atalean azaldutako legeez, botere-desorekak orekatzeko, hain zuzen, boterearen birbanaketa egin behar da. Horrek, funtsean, esan nahi duena da batzuei boterea emateko beste batzuei kendu behar zaiela; eta hori gatazkatsua izan ohi da (Morales, 2016, 199. or.). Beraz, esperientzia publiko-komunitarioak, oro har, eraldatzaileak eta ahalduntzaileak izateko gatazkatsuak izan behar dira, eta gatazkaren kudeaketa, dimentsio demokratizatzailea izateko, begirada intersektional kritiko batetik egin behar da. Izan ere, Collinsek berak dioen moduan (2019, 150. or.), «botere-harremanek gatazkak sortzen dituzte, eta gatazka asko epistemologia, teoriak eta metodologiak arautzen dituzten arauetan integratuta daude».

Hortaz, batetik, gatazkaren kudeaketarako erabiltzen diren metodologiak hausnarketa eta azterketa kritikoa egitea funtsezkoa da, horien bitartez botere-desorekak ez birsortzeko; metodologia nork eta nondik diseinatu den eta inplementatu den aztertzeko. Eta bestetik, inplementazioan gertatzen denaren azterketa intersektionala egitea funtsezkoa da. Ezinbestekoak izango dira inplikaturako gorputzen subjektibotasuna aintzat hartzen duen begirada eta tresna intersektionalak. Hau da, ezinbestekoa izango da gatazkan parte hartzen dutenen adinari, generoari, klaseari, arrazari, kapital sozialari, baliabide emozionalari eta abarri. erreparatzea. Prozesuaren erraztatzaileek begirada kritikoa izan beharko lukete gatazka horren sostenguan eta kudeaketan, horren dimentsio demokratizatzailea, eraldatzailea, eta azken batean, ahalduntzailea lortzeko.

Baina gobernantza publiko-komunitario intersektionala praktikan jarri nahi bada, ez da nahikoa botere-desoreken ikuspegi kritiko eta konplexua integratzea. Bi kontzeptuon uztarketarako beharrezkoa da barneratzea desberdintasun sozialak dauden artean, gatazka egongo dela. Ildo beretik, Audre Lodrek 1981ean idatziriko «The uses of anger: woman responding to racism» idazkian amorruren inguruko gogoetak plazaratzen ditu. Hain zuzen ere, arrazakeriarekin lotutako solasaldietan emakume beltzek amorrua erabiltzearen aldeko aldarrikapena egiten du.


Amorruak potentzialitate eraldatzailea du; baina horretarako, ikuspegi feminista intersektional batetik, prozesua zaindu behar da. «Marko intersektionalean ulertu behar da mundu guztiak pribilegioak dituela, eta horiek ezin direla beste pertsonen aurka jaurti arma gisa. Esparru intersektionalean ere ulertu behar da amorrua jasotzen duen pertsonak min-karga handiak izan ditzakeela eta aitortza ere behar duela» (Rodó-Zárate, 2021, 121. or.).

Gatazkaren dimentsio demokratizatzailea eta eraldatzailea gauzatzeko, beraz, prozesuaren eta pertsonen zaintza beharrezkoa da. Baita Rodó-Záratek (2021, 117-119. or.) proposatzen dituen hiru adierazle barneratu eta praktikan jarri ere, zauri intersektional horiek kudeatzeko eta eraldatzaileak izateko: (1) Autokritika.

«Norbere pribilegioetatik sortutako hausnarketa eta ekintza» beharrezkoa da. «Ikasteak bizi duten zapaluntzaren inguruan lehenengo pertsonan hitz egiten duten ahotsak irakurtzea eta entzutea esan nahi du». (2) Norberak bere pribilegioak aitortzea. Eta hauek konszienteak edo inkonszienteak izan daitezke. (3) Ekintza. «Eragiteko gaitasuna dugun zenbait pribilegiari uko egitearen ekintza».

4.2. Sakontze demokratikorako esparru heuristikoa

Gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko elkarriketatik sortzen den dimentsioa arakutzen jarraitzeko hurrengo grafikoa aurkezten da; bertan, eraldaketa sozialaren, ahalduntzearen eta gatazkaren arteko elkarrekintzaren bidezko sakontze demokratikorako markoa proposatzen da. Beraz, horrek elkarriketatik sortutako heuristikak bestelako esparru heuristikoak sor ditzakeela aditzera eraman gaitzake.



2. grafikoa. Sakontze demokratikorako esparru heuristikoa.

Iturria: egileak berak egina.

4.2.1. Eraldaketa sozialaren eta ahalduntzearen arteko esparrua

Dena den, hiru alorren artean sortzen den esparru heuristikoa arakatu aurretik, proposa da, binaka konpartitzen dituzten esparruak azaltzea. Horretarako, 4.1. atalean azaldutako konpartitzen dituzten elementu komunak laburbilduko dira eta binakako elkarrekintzan arakatuko da.

Hasteko, arestian aipatu legeez, eraldaketa sozialaren eta ahalduntzearen artean lotura estua dago, ahalduntzearen helburua eraldaketa soziala baita. Biek behetik gorako prozesuak behar dituzte behar bezala garatzeko; boterearen birbanaketa bilatzen baitute. Eta, lehenago azaldu bezala, goitik beherako prozesuetan zaila eta korapilatsua da boterearen birbanaketa gauzatzea. Horretaz gain, biek bizitza eta

giza jarrerak ulertzeko beharra erakusten dute. Bide horretan, interseksionalitatek dominazio-matrizea proposatzen da giza jarrearen bidez birsortutako dominazio-sistemak irudikatzen. Haren genealogiek erakusten duten moduan, feminismo beltzetik bereziki, interseksionalitatea bere horretan eraldatzailea eta ahalduztzailea da; bizitza eta giza jarrerak ulertzeko ikerketarako markoa eskaintzen duen heinean.

Arestian esandako gisara, aztergai den gobernantza publiko-komunitarioak eraldatzailea behar du izan; haren helburu nagusia demokratizazioaren sakontzea izanik. Ikusten denez, interseksionalitateak eskaintzen dio horretarako markoa. Eraldaketa sozialak desjabetuen boteretzea edo ahalduztzea beharrezkoa baitu testuinguru bakoitzean dominazio-logikak desaktibatzen.

Horretaz gain, eraldaketa sozialaren eta ahalduztzearen elkarrekintzarekin amaitzeko, azpimarratzekoa da haien arteko elkar-elikatzearen potentzialitatea. Izan ere, ahalduztzearen helburua eraldaketa soziala da; baina eraldaketa sozialak desjabetuen ahalduztzea ekartzen du; eta izatez, ahalduztzea ere bada eraldaketa sozialaren xedea. Beraz, bata bestearen kausa eta ondorioa direla esatera ausar gintezke.

4.2.2. Eraldaketa sozialaren eta gatazkaren arteko esparrua

Eraldaketa sozialaren eta gatazkaren arteko harremanari dagokionez, biek behetik gorako prozesuen aldarrikapena egiten dute. Eraldaketa sozialaren kasuan freskatu berri dugu; eta gatazka aurretik adierazi bezala, onargarriagoa eta zilegiagoa ikusten da behetik gorako prozesuetan. Eraldaketa sozialerako tresna gisa, hain zuzen ere. Eta, egia esan, antzeman daitekeenez, bi alor hauen arteko elkarrekintza ere arras interesgarria da. Izan ere, gatazka eraldaketa soziala gauzatzeko tresna da; eta, aldi berean, gatazkaren helburua eraldaketa soziala da.

Kasu honetan ere biek boterearen birbanaketa bilatzen dute, eraldaketa sozialaren barnean baitago boterearen birbanaketa; botere-desorekak orekatzea. Gehiago duenari kentzea gutxiago duenari emateko. Eraldatzeko. Hori dagoeneko azaldu dugu gatazkatsua dela. Eta, noski, gatazkak baditu bere funtzioak, bere izateko arrazoiak; eta nagusia, funtsean, eraldaketa da.

Baina harreman hau konplexutasunera bideratzeko beharra sumatzen da. Izan ere, gatazkak dimentsio demokratizatzailea izateko, edo funtsean, eraldatzailea izateko, haren kudeaketarako begirada eta tresna interseksionalen beharra du. Gatazka bere horretan politikari berezkoa zaiola aipatu da. Beraz, bizitzari ere berezkoa zaio. Hortaz, gatazka hor dago; baina bere horretan ez dakar dimentsio demokratizatzailearik. Dirudienez, gatazkaren kudeaketa interseksionalak ekarriko luke dimentsio demokratizatzailea. Gatazkak lurra jotzen duenean, haren kudeaketaren arabera, boterearen birbanaketa egiten den edo ez ikusiko da. Horretarako, beharrezkoa izango da prozesuko bidelaguntzaileen begirada kritiko interseksionala: gatazkaren kudeaketan parte hartu beharko luketenen identifikazioa, hausnarketaren, hitzaren eta erabakiaren parte izan behar dutenen partaidetza bermatzeko teknikak eta esku-hartzeak zehaztea eta prozesuaren ebaluazio kritikoa egitea, hain zuzen ere. Baita lehenago aipatutako zauri interseksionalen klabeetan prozesua kudeatzea ere.

4.2.3. Gatazkaren eta ahalduntzearen arteko esparrua

Gatazkaren eta ahalduntzearen arteko loturari dagokionez, biek, berriki azaldu denez, behetik gorako prozesuak behar dituzte eta biek ere boterearen birbanaketa bilatzen dute. Halaber, helburu konpartitua dute: eraldaketa soziala, alegia. Eta horretan datza haien arteko elkarrekintza. Ahalduntzeak gatazkan parte gisa inplikatzeko baimentzen du, eta gatazkaren kudeaketa zainduak eta demokratizatzaileak ahalduntzea baimentzen du. Eta horrek bere horretan badu dimentsio eraldatzailea, aditzera emanez gatazkaren dimentsio demokratizatzailea. Hain zuzen, desjabetuen ahalduntzearen bidez eraldaketa sozialerako bidean jartzea errazten duelako.

Baina aurreko azpiatalean azaldutako moduan, harreman hau ere problematizatzeko beharra ikusten da. Izan ere, gatazkak, bere horretan, ez du zertan prozesu ahalduntzailerik ekarri. Horretarako beharrezkoa izango da zauri intersektionalen kudeaketa zaintzatik egitea, Maria Rodó-Zaratek azaltzen dituen urratsen bidez.

4.2.4. Eraldaketa sozialaren, ahalduntzearen eta gatazkaren arteko esparru heuristikoa

Oro har, hiru dimentsioen artean elkar elikatzeko esparrua aurkitzen da; eta hori sakontze demokratikorako esparru heuristikoa dela antzeman daiteke. Izan ere, hiru dimentsioak prozesu gisa uler daitezke, jarraitutasun bat duten elementu gisa, alegia. Hau da, gatazka eraldaketa sozialerako tresna da, eta horrek, ahalduntze-prozesuetan eragiten du, ahalduntze-eredu erradikalaren helburua eraldaketa soziala delako. Era berean, eraldaketa sozialaren xede nagusietako bat ere desjabetuen ahalduntzea da; hots, boterearen oreka bilatzea. Eta orekatze hori gatazkatua izan ohi da; esan bezala, gatazkaren helburua, funtsean, eraldaketa da.

Elkarrekintza hau hobeto ulertzeko, demagun udalerri jakin bateko herritar talde batek kudeaketa komunitarioko liburutegi bat sortu nahi duela eraikin publiko batean. Helburuen artean bazterketa-egoeran dauden herritarren alfabetatze-prozesua egitea eta komunitatea sendotzea daude. Eraikina publikoa denez, herritarrek erakunde publikoekin lan-prozesu bat egin behar dute espazio horren kudeaketa komunitateari uzteko. Udalak bere baldintza propioak jarri nahi ditu publikoa den eraikin horretan, eta horiek herritarren helburuak zailtzen dituzte. Horrek gatazka edo talka bat eragiten du udalaren eta herritarren artean. Horri bide emateko udalak kanpo-aholkularitza bat deitzen du eta negoziazio-mahaia sortzen da.

Lan handiaren ostean, liburutegi komunitarioa dute eta martxan jartzen dira gauzatu nahi dituzten esperientziekin. Hori, dagoeneko, elkarlan publiko-komunitarioa izaten ari da. Era berean, proiektuaren diseinuan, negoziazio-mahaian eta orain, inplementazioan begirada intersektionala jarri da. Prozesuan herritarren taldeko zenbait ordezkariak parte hartu dute, ordezkari horiek euren generoaren, adinaren, klasearen eta arrazalizazioaren arabera eskain ditzaketen eta beharrezkoak diren ikuspuntuengatik aukeratuak izan dira. Udalaren partetik zinegotzi batek eta udal-teknikari batek parte hartu dute, eta kanpo-aholkularitza bestea bi kide izan dira.

Espazioa lortzeko prozesuan dagoeneko herritarren taldeko ordezkariak ahaldunduntze-prozesu bat izan dute, ohikoa ez zaien leku eta kokapen batean jarritz. Gatazka edo talka baten aurrean kudeaketa-prozesu bat abiatuz. Ondoren, euren helburuak aurrera eramateko egin diren proiektuetan are gehiago ahaldundu dira. Batetik, alfabetatze-prozesua egiten ari diren pertsonak; bestetik, euren lan militantetik irakasten ari diren herritarrak. Hori eraldaketa bat eragiten ari da; zenbait herritar irakurtzen eta idazten ikasten ari direlako eta elkarlan hori dinamika komunitarioak sendotzen ari delako. Orduan ere talka bat sortzen da irakasten duten herritarren eta ikasten ari diren herritarren artean zenbait botere-desoreka birsortzen ari direlako. Zauri interseksionalak ardatz hartuta, gatazkaren kudeaketa egiten da eta horrek bestelako eraldaketa eta ahaldunduntze bat ekartzen du. Bereiziki euren arteko kokapenak berdintzeko baliabideak eskuratzen ari direlako.

Adibide honen bitartez gobernantza publiko-komunitario interseksionalak demokratizaziorako esparru heuristiko horri eskaintzen dion markoa agerikoa egin nahi da. Ikusten denez, elkar elikatzen duen elkarrekintza-prozesua da; gauza batek bestea ekartzen du. Alfabetatzeak zenbait pertsona ahaldundu ditu eta eremu bateko egoera eraldatu du. Horrek komunitatea sendotzen lagundu du, bertako parte-hartzaile guztiak ahaldunduz eta eraldaketarako baldintzak hobetuz. Bide horretan, botere-desorekek gatazka bat sortu dute, eta horren kudeaketa interseksionalak boterearen orekatzetik gertuago egotea eragin du. Horrek egoera eraldatzeko beste urrats bat eragin du eta herritarren ahaldunduntzean ere beste urrats bat izan da. Horrela, harremanen dinamikotasunean etengabeko elkar-elikatzea gerta liteke.

Ondorioz, etengabeko elkarrekintzan murgilduta dauden dimentsioak dira. Sakontze demokratikorako esparrua ireki ez ezik, horretarako bide berriak arakatzeko aukera ere eskaintzen du. Horretan datza, beraz, beraren dimentsio heuristikoa. Izan ere, elkarrekintza horretatik antzeman daiteke demokratizazioan sakontzen jarraitzeko esparrua eskaintzen dela.

5. Ondorioak

Hortaz, artikulua honetatik hiru ondorio nagusi jaso dira. Lehenengoa, artikulua honen premisa edo hipotesi nagusia zena ondorio modura baieztatu da. Izan ere, interseksionalitateak eta gobernantza publiko-komunitarioak elkarren beharra dutelako ideia indartzen da. Ikusi denez, gobernantza publiko-komunitarioak interseksionalitatea behar du, ez soilik desberdintasun sozialen konplexutasunera heltzeko, baita desberdintasun horiek sor ditzaketen egoera gatazkatsuak kudeatzeko, botere-desorekak eraldatzeko eta subjektuak ahalduntzeko ere. Era berean, interseksionalitateak gobernantza publiko-komunitarioa behar du harremanen konplexutasunera heltzeko, horien ezagutza hurbila behar duelako. Baina baita bere praktika eraldatzailerako bideratutako teoritik gertu mantentzeko ere; praktika interseksionalerako marko bat izateko.

Beraz, horrekin lotuta bigarren ondorio bat antzeman daiteke. Patricia Martinez-Garciak eta Jone Martinez-Palaciosek arestian aipatutako artikuluan azaltzen dutenez, demokrazia parte-hartzailearen eta interseksionalitatearen

arteko dialektikatik eraldaketa sozialerako bidea hartzen dela ondorioztatzen den moduan, gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko harremanetik, eraldaketa sozialaren, ahalduentzearen eta gatazkaren arteko elkarrekintzatik sortutako demokratizaziorako esparru heuristikoa sortzen dela ondorioztatzen da.

Antzematen den beste ondorio nagusietako bat da demokratizazioan sakontzeko adierazle interseksionalak behar direla. Hau da, gobernantza publiko-komunitarioa eraldatzailea izateko ez da nahikoa behetik gorako prozesua izatearekin edo hori bilakatzearekin. «Behean» ere botere-desorekak daudelako, eta horiei erreparatzea eta horietan esku hartzea ezinbestekoa da eraldaketa sozialean; edo, funtsean, demokratizazioan sakontzeko. Aitzitik, litekeena da «behean» dauden horien artean kokapen pribilegiatuena dutenen ahalduntzea jazotzea eta haiek izatea eraldaketaren onuradun nagusiak. Lehenago Martinez-Garcia eta Martinez-Palacios aipatu dira azaltzeko interseksionalitateak esperientzia demokratizatzaileei gogorarazten diela eraldatzaileak izateko hausnarketa kritikoa egin behar dutela. Hortaz, elkarlan publiko-komunitarioaren markoan jazotzen diren esperientziek, demokratizazioan sakontzeko, ezinbestekoa dute interseksionalitatearen ardatza.

Ezin baitugu ahaztu eraldaketa sozialaren, ahalduentzearen eta gatazkaren arteko demokratizaziorako esparru heuristiko hori gobernantza publiko-komunitario interseksionalaren markoan kokatzen ari garela etengabe. Hiru alorrek banaka eta hirurek elkarrekintzan, bederen, bi ezaugarri konpartitzen dituzte: (1) behetik gorako prozesuak izan behar dutela, eta (2) boterearen birbanaketa edota botere-desorekei aurre egitea bilatzen dutela. Artikulu honen garapenean azaldu den legez, bai interseksionalitateak baita aztergai dugun gobernantza publiko-komunitarioak ere bi ezaugarri horiek berezkoak dituzte. Are gehiago, bi kontzeptuek posible egiten dute hiru alorren arteko elkarrekintza, izateko espazioa eskaintzen diote. Airean, dimentsio abstraktuan gera litezkeen kontzeptuak lurreratzeko markoa eskaintzen du gobernantza publiko-komunitario interseksionalak.

Honek behetik gorako prozesuak aurrera eramateko aukera eskaintzen du, herri-mugimenduen eta gizarte-zibilaren inplikazioa eta erabakitze-ahalmena handituz; herritarrak esperientzien sustatzaileak izatea ere ahalbidetuz. Interseksionalitatea-ekin erlazionatzeak ere marko horren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan begirada eta tresna kritikoak jartzearen ekarpena egiten dio.

Honek, noski, demokratizazioan sakontzeko aukerak eskaintzen ditu. Hau da, gobernantza publiko-komunitario interseksionalaren xedeari bide ematen dio. Zentzu horretan, sarreran aipatutako galderari erantzun edo proposamen bat eskaintzeko saiakera egin da. Betiere, aintzat hartuta, proposatzen den marko interpretagarri honetan arakatzen jarraitu daitekeela eta ikerketa-lerro berriak ezagutzeko aukera eskain dezakeela. Hortaz, gobernantza publiko-komunitarioaren eta interseksionalitatearen arteko elkarriketatik abiatuta, zein da eraldaketa sozialaren, ahalduentzearen eta gatazkaren artean sortzen den esparru heuristikoa aztertzeko marko interpretagarria?

Hurrengo taulan marko hori eskaintzen da; bertan, artikuluan zehar garatutako ideiak laburbiltzen dira eta aztertutako hiru alorrak jasotzen dira: (1) eraldaketa soziala, (2) ahalduntzea eta (3) gatazka. Horiek, aurreko lerroetan adierazi moduan, gobernantza publiko-komunitarioaren markoan kokatzen dira, eta alor bakoitzean dominazio-matrizearen bidez interseksionalitatea tresna gisa baliatzeko proposamena egiten da. Horregatik, laugarren espazio bat gehitu da prozesuaren izaerari erantzuten diona, prozesuaren noranzkoa eta honek ekarritako boterearen birbanaketa jasotzeko. Argi utzi nahi da, halaber, zenbaitetan abstraktuak eta konplexuegiak bihurtu daitezkeen ideiei forma emateko tresna izan nahi duela eta ez eredu zurrunetan ezagutza ordenatzeko eta sailkatzeko erdua. Hala, proposamen dinamikoa eta malgua da.

1. taula. Sakontze demokratikoaren esparru heuristikoaren azterketarako marko interpretagarria.

Eraldaketa soziala	Gizartean eragindako aldaketak. Esperientziako parte-hartzaileengan eta era zabalean.
	Dominazio-matrizearen zein ardatzetan jazo da aldaketa.
Ahalduntzea	Autodeterminaziorako gaitasuna. Banakako, taldeko, kolektiboko baliabideen eta ongizatearen garapena.
	Dominazio-matrizearen zein ardatzetan jazo da ahalduntzea.
Gatazka	Jazotako gatazken egoeraren garapena. Zein da gatazka, zer botere-desorekari erantzuten dio, zein izan da haren garapena?
	Gatazken kudeaketa zauri interseksionalen zaintzatik. Autokritika, pribilegioen aitortza, ekintza (pribilegioei uko egitea).
Prozesuaren izaera	Behetik gorako prozesua. Nor izan da sustatzailea. Udala izan bada, behetik gorako prozesua bilakatu da? Noiz? Nola?
	Boterearen birbanaketa. Zein izan dira erabakiguneak? Nork parte hartu du horietan (dominazio-matrizearen ardatzak aintzat hartuta)? Nola hartu dira erabakiak? Zer erabaki mota hartu dira erabakigune bakoitzean?

Iturria: egileak berak eginikoa (De Hassen, Collinsen, Moralesen, Buan eta Bussun eta Rodó-Záraten inspiratuta).

Laburbilduz, marko interpretagarri honen proposamena esperientzia publiko-komunitarioen sakontze demokratikorako urratsak biltzea da. Horretarako, eraldaketa sozialaren, ahalduntzearen eta gatazkaren kudeaketaren alorrak baliatu dira. Horri dominazio-matrizearen tresna gehitu behar zaio, prozesu demokratizatzaile horien subjektuak nor eta nola izan diren ezagutzeko ezinbestekoa izango zaiguna.

Horretarako, eraldaketa sozialaren esparruari dagokionez, esperientzia publiko-komunitarioaren analisian, horrek gizartean eragin dituen aldaketak galderari erantzuten saiatuko gara. Bai esperientzia horretako parte-hartzaileengan eta bai, oro har, eremu horretako herritarrengan. Ondoren, dominazio-matrizearen zein ardatzetan jazo den aldaketa aztertuko da.

Ahalduntzearen alorrari erreparatuz, batetik, inplikaturako herritarrek lortu dituzten baliabide indibidualak (adibidez idazten eta irakurtzen ikastea), taldekoak (sarea egitea) eta kolektiboak (elkarlanerako kultura garatzea) zein izan diren jasoko da. Eta, bestetik, berriz ere, dominazio-matrizearen zein ardatzetan gauzatu den ahalduntze hori. Adibidera bueltatuz, esate baterako, bazterketa-egoeran zegoen jendea, sare herritar edo komunitate hori osatu dutenak eta udaleko langileak euren kultura politikoa zabalduz ahaldundu dira. Era ezberdinetan jaso daiteke ahalduntze hori pertsonaren kokapenaren arabera. Lehenengokoen kasuan aipatu dugu. Baina, adibidez, udal-politikari eta -teknikarien kasuan hurrengoak izan liteke: (1) banakako esparruan, zenbait herritar eta esperientzia komunitarioa ezagutzea. (2) Taldekoan, herritarrengana gerturatzeko bide berriak. Eta (3) kolektiboan, elkarlanerako kultura garatzea.

Gatazkaren kudeaketaren esparruan arakatzea proposatzen da. Bertan, gertatutako gatazkak eta horien garapenak jasoko dira. Hau da, zein izan den gatazka, zein interesi egiten dion erreferentzia edo zein botere-desoreka irauli nahi duen. Horretaz gain, egoera horren kudeaketa Maria Rodó-Záratek, zauri intersektionalen zaintzan oinarrituta, azaltzen dituen hiru urratsen bidez egitea proposatzen da (ikus 4.1.3. atala). Eta marko honek pauso horietan gertatutakoa jaso nahi du.

Azkenik, prozesuaren izaerari dagokionez, batetik, prozesuaren noranzkoan jartzen du arreta. Hau da, behetik gorako prozesua den edo goitik gorakoa, nor izan den sustatzailea, alegia. Udala sustatzailea izan bada, prozesu hori behetik gorakoa bilakatu den arakatuko da. Eta hala bada noiz eta nola izan den. Bestetik, boterearen birbanaketari erreparatuko zaio. Horretarako, erabakiguneak zein diren, bakoitzean zer eta nola erabakitzen den eta dominazio-matrizeko ardatzak oinarri hartuta, nork parte hartu duen erabakigune horietan behatuko da.

Proposamena aberasteko eta eraldaketa sozialaren, ahalduntzearen eta gatazkaren arteko demokratizaziorako esparru heuristikoa aztertzeke, aurretik azaldu den 2. grafikoa baliatzea interesgarria izan daiteke. Marko interpretagarritik lortutako emaitzak biltzea eta horien elkarrekintza arakatzea, hain zuzen ere. Berezik, eraldaketa sozialaren eta ahalduntzearen, ahalduntzearen eta gatazkaren eta gatazkaren eta eraldaketa sozialaren arteko harreman dialektikoan sakontzeko; eta hiruren arteko elkarrekintzatik sortzen den demokratizaziorako esparru heuristikoa arakatzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Azkune, J., Zubiaga, M., eta Etxebarría, E. (2024). Gobernanza impulsada por la democratización: el caso de Hernani Burujabe. *Oñati Socio-Legal series*, 14(4), 1032-1057. <https://opo.iisj.net/index.php/osls/article/view/1898/2277>
- Bachmann, I. (1986). *Leçons de Francfort. Problèmes de poésie contemporaine*. Actes Sud.
- Biewener, C., eta Baqué, M.H. (2016). *El empoderamiento. Una acción progresiva que ha revolucionado la política y la sociedad*. Gedisa Editorial.
- Bidaseca, K., eta Vázquez, V. (2011). *Feminismos y poscolonialidad. Descolonizando el feminismo desde y en América Latina*. Ediciones Godot.
- Biehl, J. (2018). *Las políticas de la ecología social. Municipalismo libertario*. Virus.

- Bua, A., eta Bussu, S. (2021). Between governance-driven democratisation and democracy-driven governance: Explaining changes in participatory governance in the case of Barcelona. *European Journal of Political Research*, 60(3), 716-737. <https://ejpr.onlinelibrary.wiley.com/doi/full/10.1111/1475-6765.12421>
- Bilge, S. (2009). Théorisations féministes de l'intersectionnalité. *Diogenes*, 225(4), 70-88. <https://julesfalquet.com/wp-content/uploads/2021/09/Art-Bilge-Intersectionnalite.pdf>
- Caamaño, A. (2021). *Manifiesto municipalista. Un análisis histórico-crítico de experiencias contemporáneas de gobernanza local*. Catarata.
- Cho, S., Crenshaw, K.W., eta McCall, L. (2013). Toward a field of intersectionality studies: Theory, applications, and praxis. *Signs*, 38(4), 785-810.
- Coll-Planas, Gerard, eta Solà-Morales, Roser (2019). *Guía para incorporar la interseccionalidad en las políticas locales*. Ajuntament de Terrassa: Igualdades Conectadas. <https://igualtatsconnect.cat/wp-content/uploads/2019/09/Publicacion-Igualtats-Connect-ES.pdf>
- Collins, P.H. (2015). Intersectionality's definitional dilemmas. *Annual Review of Sociology*, 41(1), 1-20.
- Collins, P.H. (2017). The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy, *Investigaciones Feministas*, 8(1), 19-39.
- Collins, P.H. (2019). *Intersectionality as Critical Social Theory*. Duke University Press.
- Collins, P.H. eta Bilge, S. (2019). *Intersectionality*. Polity Press.
- Forné, L. (2020). La colaboración público-comunitaria para defender lo común. *El Salton*. <https://www.elsaltodiario.com/ciudades-vs-multinacionales/laia-facet-municipalismo-publicocomunitario-defensa-bienes-comunes>
- Fung, A. (2015). Putting the Public Back into Governance: The Challenges of Citizen Participation and Its Future. *Public Administration Review*, 75(4), 513-522 <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.1111/puar.12361>
- Goikoetxea, J. (2024). El feminismo no es una campaña de marketing para un detergente que le vendrá fenomenal a toda la familia. *Pikara Magazine*. <https://www.pikaramagazine.com/2024/10/todo-proceso-de-cambio-politico-emancipatorio-implica-violencia-para-alguien/>
- Hancock, A. (2016). *Intersectionality. An intellectual history*. Oxford University Press.
- Martinez-Palacios, J., eta Martinez-Garcia, P. (2019). Diálogos entre la democracia participativa y la interseccionalidad. Construyendo marcos para la justicia social. *Feminismos*, 33, 13-20.
- Lodre, A. (1981). The uses of anger: woman responding to racism. *CUNY Academics Works*, 25(1/2), 278-285. <chrome-extension://efaidnbmninnbpcjpcgclclefindmkaj/https://academicworks.cuny.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1654&context=wsq>
- Mérida, J., eta Telleria, I. (2021). La elaboración de modelos de competencias técnicas y su aplicación en la detección de necesidades formativas. *Nueva época (gestión de análisis y políticas públicas)*, 26, 92-110.
- Morales, E. (2016). *Empoderamiento y transformación de las relaciones de poder. Un análisis crítico de los procesos institucionales de participación ciudadana* (Doktore-tesia). UAB.
- Platero, L. (2012). *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Bellaterra.
- Platero, R.L. (2020). Begirada interseksionalak. Bizitza bizigarri bat imajinatzeko tresnak. *Pentsamendu kritikoak. Garapenaz haratagoko begiradak*, 2, 33-39.
- Rodó-Zárate, M. (2021). *Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones*. Bellaterra.
- UCLG (2019). Hacia un municipalismo feminista global. *UCLFWOMEN*, https://www.uclg.org/sites/default/files/hacia_un_municipalismo_feminista_global_1.pdf

- Warren, M. (2014). 2. Kapituluua. Governance-driven democratization. In S.G. Aletta eta H. Wagenaar (argtz.), *Practices of freedom: Decentered governance, conflict and democratic participationen*. Cambridge University Press.
- Zugaza, U. (2023). *Entre los caminos trillados y las líneas de deseo. La institucionalización de la interseccionalidad en la política en igualdad en España (1983-2021)* (Doktore-tesia). EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/61489>

